

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

360 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Urria

Nabarmen^{tzekoak}

- > Tirolina eta graffitia 11 eta 30 urte bitarteko gazteentzat
- > Gazteria Zerbitzuak antolatutako zirkoaren eta padel surfaren harrera ona
- > Bideoen aurkezpena Beldur Barik lehiaketarako

ZABALDU BELDUR ZURE BARIK JARRERA!

BELDUR BARIK LEHIAKETA 2021

BIDEOAK BIDALTZEKO EPEA: IRAILAREN 10ETIK AZAROAREN 5ERA

PLAZO DE ENVÍO DE VÍDEOS: 10 DE SEPTIEMBRE - 5 DE NOVIEMBRE

GEHIENEZ 3 MINUTUKO BIDEOA AZPITITULUAK DERRIGORREZKOAK DIRA
MÁXIMO 3 MINUTOS DE VÍDEO LOS SUBTÍTULOS SON OBLIGATORIOS

www.beldurbarik.eus

Bideoen aurkezpena Beldur Barik lehiaketarako

Azaroaren 5era arte zabalik egongo da 2021eko Beldur Barik lehiaketarako bideoak aurkezteko epea, 12 eta 26 urte bitarteko gazteentzat. Emakunde bultzatuta, euskal erakunde guztien laguntzarekin, helburua da adierazpen artistikoak saritzea, neska-mutilek ezberdintasun egoerei Beldur Barik jarrerarekin nola egiten dieten aurre erakusteko, alegia, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, elkarkidetzeta eta indarkeria sexista eta matxistaren bazterketa irmoa adierazten dituzten jarrerarekin.

Aurkeztu beharrekoak, bakarka edo taldeka, gehienez hiru minutuko ikus-entzunezko lanak izango dira, gaztelarazko eta euskarazko azpigituluekin. Adinaren arabera, hiru kategoriatan daude, 12 eta 13 urteko gazteentzat, 14 eta 18 urte bitartekoentzat eta 19 eta 26 urte artekoentzat. Guztira, zortzi sari banatuko dira, 200 eta 400€ artekoak. Kai Nakai artistak gazteen artean Beldur Barik jarrera zabaltzeko abestia sortu du eta Uxue Bereziartua ilustratzaile feminista da aurtengo irudiaren egilea.

BEKAK SARIAK

* Ingelesezko online ikastarorako beka, 'Santander Languages-English to Boost your Career- University of Pennsylvania' izenekoak, 18 urtetik gorakoentzat. Ezinbestekoa da ingelesko B1 maila edukitzea. 1.000 beka emango dira ikastaroa bost astez egiteko gastuak ordaintzeko, 2022ko urtarrilaren 18tik 22ra. Izena emateko epea: 2021/11/23. Argibide gehiago: <https://labur.eus/IZrA>

* Leioako XXXV. Argazki Lehiaketa. Nahi duten persona guztientzat dago zabalik lehiaketa, honako modalitateetan: zuri-beltza, kolorea eta iphoneografiak edo mugikorrarekin egindako argazkiak. Gaia edozein izan daiteke baina lanek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Lanak aurkezteko epea urriaren 29an itxiko da. Argibide gehiago: www.kulturleioa.com

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Urria

Hilak 16, 23 eta 30, larunbatak: TAILERRA: ITZAL ANTZERKIA

Hilak 7, osteguna: TAILERRA: POLTSAK KUSTOMIZATUAK

Hilak 9, larunbata: IRTEERA: MENDEXA

Hilak 13, asteazkena: EKINTZA: OSASUN MENTALA

Hilak 21, osteguna, eta 22 eta 29, ostirala: TAILERRA: GRAFITIA

Hilak 26, asteartea: SUKALDARITZA: BROTXETAK

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Urria

Hilak 9, larunbata: IRTEERA: TIROLINAK LEKEITION

Hilak 15 eta 16, ostirala eta larunbata: TAILERRA: IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZA

Hilak 19, asteartea: TAILERRA: GRAFITIA

Hilak 21, osteguna, eta 22 eta 29, ostirala: TAILERRA: BELDUR BARIK GRAFITIA

Hilak 23, larunbata: ESKULANA: MOTXILAK KUSTOMIZATUZ

Hilak 30, larunbata: MASTER CHEF: HALLOWEENKO BROWNIEA



Jarduera horiek "Getxo Ekinez" programaren barruan daude Tirolina eta graffitia 11 eta 30 urte bitarteko gazteentzat

Udaleko Gazteria Zerbitzuak zabalik du oraindik *Getxo Ekinez* programaren barruan urrian antolatu dituen aire zabaleko azken bi jardueretan parte hartzeko izena emateko epea. *Getxo Ekinez* COVID-19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko programa da. Jarduerak (osasun baldintza guztiak beteko dituzte) 11 eta 30 urte bitarteko gazteentzat dira eta doakoak dira. Jarduera horietarako eta irailean garatutako jardueretarako aurrekontua 8.000 €-koa da. Tirolina jarduera hilaren 9an (larunbata) izango da Lekeitio-

ko *Mendexa Abentura* parkean. Eguneko txangoa izango da eta ordutegi hau izango du: irteera 10:00etan (Romon eta Algortan geroakua izateko aukerarekin) eta etorrera 19:00etan. 11 eta 30 urte bitarteko gazteentzako 50 plaza daude eta izena hilaren 8ra arte (ostirala) eman daiteke, 12:00ak arte. Graffitiari buruzko jardunaldia hilaren 19an (asteartea) izango da, 17:00etatik aurrera, Romoko Santa Eugenia plazan, 14 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. 20 plaza daude libre eta izena emateko epea hilaren 18ra arte (astelehena)

luzatuko da, 12:00ak arte. Inskripzioak hemen formalizatu behar dira:

- Gazte Bulegoa. Tangora Etxea, Algortako etorbidea 98. Tel.: 94 466 03 53 / 688 88 09 85. gaztebulegoa@getxo.eus
- Gaegun Gaztelekuak. Urgull 4 (Algorta). Tel.: 94 466 03 56. gaegungaztelekuak@getxo.eus
- Gure Gune Gaztelekuak. Romo Kultur Etxea-RKE, Santa Eugenia plaza 1 (Romo). Tel.: 94 466 00 22. guregunegaztelekuak@getxo.eus



Gazteria Zerbitzuak antolatutako padel surfaren eta zirkoaren harrera ona

Udaleko Gazteria Zerbitzuak, *Getxo Ekinez* programaren barruan, joan den irailean aire zabalean antolatu zituen jardueretako bik erantzun ona izan zuten haur eta gazteen artean. *Getxo Ekinez*, COVID-19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko programa da. Padel surfeko jardueraren kasuan, txan-

daren batean uretan sartzeko eguraldiak erabat ez bazuen lagundu ere, 30 gaztek hartu zuten parte; eta zirko jarduerak, bestalde, Romoko Eskola baten ardurapean eta 20 lagunentzat egin zen ekintza, beste horrenbeste haur erakarri zituen egun eguzkitsu batean. Itxaron zerranda ere egon zen.

Gazteen Gurutze Gorriaren deia

Gazteen Gurutze Gorriak boluntarioak behar ditu haurrekin martxan jarri nahi duen proiektu baterako. Era berean, 6 eta 10 urte bitarteko haurrei dei egiten die elkartean aisialdiko taldea handitzeko. Talde horretan jarduerak egiten dituzte, bai aire zabalean, bai Arriluzeko lokalean: eskulana, txangoak, tailerrak, abentura-irteerak, prestakuntza... Deialdi honetan interesa dutenak elkartearrekin harremanetan jar daitezke telefono zenbaki hauetan: 94 460 92 95/ 617 318 041.

